

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko uztailearen 21a

Erronkariara, agonia eta heriotza

■ 1966. urteko uztailearen 29an On Ubaldo Hualde zendu zen Izaban, 96 urte zituela.

Bera zen Erronkariko euskaraz mintzaten eta idazten zekien azkena, Erronkariko jantzia egunero erabiltzen zuen azkena. Nortasun erronkariarraren sinbolo osoa. Hainbat filologok Ubaldo Hualderen eta Erronkariko euskararen heriotza datek bat egiten dutela uste du. XIX. mendera arte egin behar dugu atzera hizkuntz milurteko bat, euskalkirik primitiboena ehun urte eskasetan nola desagertu den ulertzeko. ■



Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Sanferminetako euriek negar-malkoen moduko ur gazia isuri didate gainera eta barneratu zaidan zapore txarra ezin kenduz nabil. Ez dakit orain gatz-hondarrekin zer egin, berriz ere itsasora itzuli edo gaur eguneko tresneria lagun, zerbaiterako erabilgarri bihurtu.

Bisita iragarria zuten batzuk ez ziren ageri. Aurreko urteetan etorritako beste batzuk ezin izan ziren hemen egon. Behar baino lehen joan zirenetakorik izan da eta nahiz eta hemen gure artean egon, ikusi ez njuenetakorik ere bai. Datorren urtean ez ditut batzuk toki berean ikusiko, gure mundua aldakorra baita.

Ustekabeko topaketak izan dira hala ere. Egindako deiei erantzuna eman dietenak ere bai. Lagun arteko bazkari

Zezenaren itzala

eta afari builosoak, dantza etengabeak, lore-truke dibertigarriak, solas lasaiak eta horren lasaiak izan ez zirenak, zibilizatuak beti ere.

Zerutik jaitsitako aingeru bataiatu-gabe-arimaduna ezagutu nuen festa giroan murgildurik. Gaua zen eta zarata handia zegoen bainan haren begirada xamurra, bere hitz goxoa eta islatzen zuen distiraren argitasuna ez ditut nolana ahantziko.

Ez da hori eguneroko gure dimentsioetatik gora sumatutako sentsazio bakarra.

Bere anai-taldetik galdutako zezen batek itzala utzi du Estafeta kalean, 57. zenbakiaren parean. Auskalo nolakoa zen, gorrixka, ñabarra, edota gehienak bezalaxe beltza, itzala beti ere iluna

baita. Nongo ganaderiatakoa ote den jakitea ere ez da errexia. Adarrak finak eta jakina, zorrotzak, beldurgarriak zituenez zezen horrek eta burua, berriz, tente, harroa, ederra.

Eta paretan geratutako itzalak zer nahi duen edo zergaitik dagoen hor eta noiz arte egon behar duen galdetzen diot neure buruari. Datorren urtera arte eutsiko al dio? Bilduko da orduan lehen entzierroko adardun baten haragi-hezurrekin? Garbitzaileek desagertaraziko dute laister, beharbada. Inor gutxi ez du fenomenoaren berri izanen, ni izan bainaiz soilik erreparatu duena. Edozein modutan zezenak utzitako arrastoak niregan kezka sortu du eta Estafetako irudiari so egon behar dut aurrerantzean ere, badaezpada.

* **GURE AUKERAK**

KONTZERTUAK

Lizarra: Herriko kiroldegian Luz Casalek kontzertua eskainiko du datorren ostiralean, gaueko 10:00etatik aurrera.

DANTZA

Corella: Angevin Folklore Taldeak eta Indonesiako Riau taldeak euren ikuskizuna aurkeztuko dute gaur, gaueko 10:00etatik aurrera. Nazioarteko Dantza Folklorikoaren Jaialdiaren barruan. Egun berean, Lizarran, Bulgariako Dantza Taldeak eskainiko du bere emanaldia egitarau beraren barruan.

ANTZERKIA

Adiotz: Kilkarak antzerki taldeak *Jonjoli* lana taularatuko du gaur, gaueko 10:30etatik aurrera, pilotalekuan.

ZINEMA

Altsasu: Herriko Gure Etxean *Los puentes de Madison* filmea emango dute gaur gaueko 10:30etatik aurrera.

Bidankoze: Herriko pilotalekuan *La isla de las cabezas cortadas* filmea izanen da ikusgai gaur, gaueko 10:00etan.

ERAKUSKETAK

Tafalla: Marokoko pinturaren adierazgarri den Smail Hemaniren lana ikusgai dago hilaren 26ra bitartean herriko Kultur Etxean, Kultur Patronatuaren eskutik.

Ihunberri: Nafarroako horreoak izeneko erakusketa ikusgai da udaletxeke erakusketa aretoan, hilaren bukaerara arte.

Zangoza: *Balkoi eta lorategien apaingarriak* izeneko argazki erakusketa ikusgai dago Kultur Etxean, abuztuaren bukaerara bitartean.

Iruñea: Gotorlekuko Armen Aretoan *Ricas y famosas* erakusketa dago hil honen 28ra bitartean.

Iruñea: Poesis aretoan Luis Araujo, Martin Esparza, Javier Erice eta Jesus Mari Irigibarren lana dago ikusgai, hil honen bukaerara arte. Arratsaldeko 6:00ak eta 8:00ak bitartean dago zabalik.

LEHIAKETAK

Iruñea: Antzerkirako Testu Lehiaketa antolatatu du Nafarroako Antzerki Eskolak. Euskaraz eta erdaraz aurkez daitezke lanak eta hizkuntza bakoitzeko sari baina egonen da. Lanak abuztuaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira Antzerki Eskolan.

BESTELAKOAK

Zangoza: Erdi Aroko Lehen Afaria ospatuko dute gaur, gaueko 10:00etatik aurrera Carmeneko klaustroan. Gaueko 11:00etatik aurrera Zangozako Udal Bandak kontzertua eskainiko du bertan.

nafarkronika

Jon Alonso

Iruñea munduko hiriburua

Urtero-urtero Iruñea betetzen da prakamotzez, Sanferminetako zapi gorriak gorde eta berehala. Udako Euskal Unibertsitateen janzkera topikoa da jada Parte Zaharreko tabernetan, bat-batean non-nahi ikusten direlako euskaraz aritzen diren gazte prakamotzak. Orain kuloteak ere ikusi ditugu erruz, eta Iruñeak badu okasio handiko gertakarien giroa.

Iruñea mundu osoko telebistetan ateratzen ari dela errepikatu digute behin eta berriz toki guztietatik. Iruñea bete da —prakamotzez eta kulotez ezezik— kolore handiko kotzez, elastiko pega-pega eginda jantzen duten neskez. Tourraren antolakuntzan dabilzan exekutibo arduratsuz, kazetari famatuz, txirrindulari erretiratu, poliziaz eta helikopteroz. Eta, jakina, txirrindulariz.

Egun hauek zerbait utziko badigute gogoan horiek izango dira. Telebistak onura handiak

ekarri dizkio kirol honi, bistan denez, eta etapa osoak hasieratik ikusi ahal izateak askori ireki dizkio begiak txirrindulariek egiten duten lana ikusteko. Hori baino are garrantzitsuagoa da gertutik ikustea, bi metroa izatea. Txapeldunek glizonen planta hartzen dute orduan, eta beti atzean diren horiek txirrindulariarena. Balioko al du horrek konturatzeko merituak ez direla hain erraz banatu behar, ez dela hemen egin behar den sailkapena onen eta txarren artekoa?

Zalantzak sor daitezke aipamenak behin eta berriro izen bati buruz bakarrik egiten baldin badira, handia izateko zorte hori izan duenari bakarrik erreparatzen baldin bazaio. Horrela jarraituz gero, izen handia desagertu ondoren, hemen ez da geldituko oroimena baizik, eta txirrindulariak berriro izango dira sailkapenen arabera sailkatuak. Prakamotzekin gertatzen den bezala, gutxi gora-behera.



asteko pertsonaiak



Karmen Larunbe
Dantzaria

■ Karmen Larunbe nafar dantzari zenari omenaldia egin diote aste honetan Iruñean. Larunbe Danza Konpainiak, hain zuzen, bi ikuskari aurkeztu ditu Gaiarre antzokian, astearte eta asteazkenean. Konpainia berak, gainera, erakusketa eta ikastaro zenbait martxan jartzeko asmoa ere badu. Karmen Larunbe 1995. urteko otsailean hil zen, gaixotasun sendaezin batek zazpi hilabetetan ahituta. Ia 30 urtez aritua zen dantzaren munduan, Argentinan hasieran, Bruselan gero eta Madrilen bukaeran. Lorpen handiak izan zituen dantzaren munduan, eta mundu osoan zehar fama eta sona eskuratu. Bere azken emankizuna Elizondon izan zen 1994ko abuztuaren 12an, Nafarroako Jaialdien barruan.



Miguel Indurain
Txirrindularia

■ Txirrindulari atarrabiarrak Frantziako Tourraren eta iruindarren omenaldia jaso zuen asteazkenean Iruñean, hamazazpigarren etapa bertara ailegatu ondoren. Tourreko etapa luzeena zen (262 kilometro), eta tartean zazpi mendate zeuden. Asteazkeneko etapa honetan zortzi minutu baino gehiago atera zizkion Bjarne Riis liderrak Atarrabiako txirrindulariari; beraz, aurten bere seigarren Tourra irabazteko aukera guztiak galdu ditu Indurainek. «Jipoi ederra hartzen ari naiz», onartu zuen Iruñeko helmugan. Zaleak, baina, hantxe ziren euren idoloa animatzeko asmoz. Txirrindulariaren jarraitzaileek ez baitute ahazten Indurainek bost Tour jarraian irabazi dituela jada, besteak beste. Ez da, inondik ere, lorpen makala.

ahaztu gabe!



BESTAK

Elizondo: Santiago jaiak asteazkenean iritsiko dira herrira, urtero legez. Igandera bitartean, beraz, musika, dantza, kirola eta jai giroa izanen dira nagusi Elizondoko karraketan barrena. Baztandarren Biltzarra igandean eta jaiak gero: ez da, ez, egitarau makala baztandarrena. Asteazkenean, besten lehen egunean eta Santiago bezperan, altxafe-roak egingen du eztanda Foruen plazan besten hasiera iragartzeko. Lehiaketak, erakusketak, musika eta dantza ez dira faltako lehen egun honetan. Egun nagusia, baina, osteguneko izanen da, Santiago Eguna hain zuzen. Meza Nagusia izanen da goizeko 11.30etan eta ondoren, 12.30ak inguruan, Mutildantzak izanen dira Foruen enparantzan. Ez dira hauek eguneko ekitaldi bakarrak, izanen da bestarako beste aukerarik ere. Baita gainontzeko egunetan ere, noski: zikiro jatea ostiralean, erraldioen konpartsaen eta fanfarreen kalejirak larunbatean eta herri kirolak igandean, herriko koadrillen egunean, alegia. Elizondo, hala ere, ez da Santiago jaiak ospatzen dituen herri bakarra. Garesen ere, besteak beste, datorren astean hasiko dira bestak.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritzak, ohiturak.

Doneztebe

Bertako produktuen erakusketa bihar

Bertizko Partzuergoak antolatuta, Elizondo, Bera eta Lesakan ere egingen dute

Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatuta, Bertako Produktuen Azoka egingen dute bihar Donezteben. Bertako ekoizleek euren produktuak erakusteko aukera izanen dute bertan. Trikitilari eta txistulariek alaituko dute giroa goizean zehar. Donezteben ezezik, Elizondo, Lesaka eta Beran ere egingen dituzte antzeko feriak.

Erredakzioa / Iruñea

BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOAK bertako produktuak bultzatzeko azoka antolatu du. Inguruko herrietan egingen dute larunbatetik aurrera. Doneztebe izanen da lehen topalekua. Ondoren, Elizondon, Beran eta Lesakan egingen dute feria. Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatu azoka honen bidez, tokian tokiko ekoizleek euren lana ezagutzera emateko eta saltzeko aukera izanen dute.

Doneztebeko azoka bihar bertan egingen dute, goizeko hamarretan eta arratsaldeko ordu biak bitartean. Feriaz gain, hala ere, izanen da ikusteko besterik ere herrian barrena. Goizeko hamarretan, hain zuzen, txistulariak ibiliko dira kaleetan zehar eta eguerdian, berriz, trikitilariak alaituko dute giroa.

Doneztebeko azokan parte

Elizondo

Baztandarren Biltzarra ospatuko dute igandean

■ Hamabost herritako orgek hartuko dute parte desfilean

Erredakzioa / Iruñea

BAZTANDARREN BILTZARRAREN 33. ekitaldia ospatuko dute igande honetan Elizondon, *Euskarak batzen gaitu* lelopean, ohi bezala. Goizeko hamarretan hasiko da jaiak. Ordu horretan, laxo partidua jokatu dute herriko pilotalekuan Malerrekako eta Baztango pilotariak.

Kirolaren bidez Baztandarren Biltzarrari hasiera eman eta gero, eguerdian, organo desfilea hasiko da Elizondoko karriketan barrena. Karrozekin batera, txistulari, zanpanzar eta dantzariak alaituko dute giroa. Hamabost herritako orgak bilduko dira desfilean zehar. Santiago eta Jaime Urrutia kaleak zeharkatu ondoren, herriko plazara iritsiko dira ordu bata eta erdietan. Bertan, Mutil Dantza zabalduko du Mariano Izeta baztandarrak. Mutil Dantzan aritu ondoren,



Bertako produktuen azoka egingen dute bihar Donezteben.

ARTXIBOKOA

hartuko duten ekoizleei dagokienez, hainbat alorretakoak izanen direla aipatu beharra dago. Lehenik, piruen eta kontserben arloan, Berako Errotazar eta Almandozko Beola izanen dira. Gaztak ere izanen dira Donezteben ikusgai eta dastagai: Elbeteko Autxixikoak, Elizondoko Etxetxiakoak, Arizkongo Baztangoak, Amairuko Mendialdekoak, Etxalarko Basatekoak eta Urdazubiko Etxelekuoak.

Edariak ere ez dira faltako. Arizkongo Baztango Likoreak, batetik, eta Lekarozko Larralde-

ren sagardoa, bestetik. Eta edariek batera, fruituak, Baztango kiwiak, alegia. Okindegiko produktuak ere ez dira faltan izanen Doneztebeko biharko azokan. Lesakatik Koikili okindegiko jakiak izanen dira dastagai, baita hainbat herritako taloak ere.

Elizondo, Bera eta Lesakan ere bai • Bertako Produktuen Feria Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatu badu, izanen dute Galarar Elkartearen, Doneztebeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntza ere. Eta erran bezala, Donezteben egin ondo-

ren, Elizondo, Bera eta Lesakan egingen dituzte antzeko feriak, bakoitzak duena eta berea dena erakus dezan. Antolatzaileek jende andana biltzea espero dute azoken inguruan, bertako produktuei bultzada emateko asmoz. Elizondora abuztuaren 10ean iritsiko da Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatu feria, eta Berara, berriz, hil bereko 24an. Leskan, azkenik, irailaren 7an egingen dute azoka. Hiru herri hauetan parte hartuko duten ekoizleak zeintzuk izanen diren, hala ere, oraindik ez dute zehaztu antolatzaileek. X

Irurtzun

Gaur hasiko dira jaiak altxaferoaren ezteandarekin

■ Asteazkenera bitartean ekitaldi ugari izanen da

Erredakzioa / Iruñea

IRURTZUNGO jaien hasiera iragarriko duen altxaferoak gaur egingen du ezteanda zeruan, arratsaldeko seietan. Ondoren, Iraunkorrak txarangaren eskuetik, kalejira izanen da herriko kaleetan barrena. Zortzietan, dantzaldia izanen da Txori Zuri taldearekin, baita gaueko hamabiak eta erditik aurrera ere. Hamar eta erdietan, lehenago, zezen suzkoa izanen da.

Bihar, berriz, kirola izanen da nagusi. Eguerdian areto futbolako txapelketa izanen da eta arratsaldeko lau eta erdietan, berriz, eskolen arteko igeriketa txapelketa. Ordu erdi beranduago, Irurtzungo IX. Pilota Txapelketako finala jokatu dute. Dantzaldirako parada ere izanen da bihar. Zortzi eta erdietan Basajaun taldea izanen da herriko plazan, baita goizal-

deko ordubateatik aurrera ere. Hamar eta erdietan, beti bezala, zezen suzkoa.

Igandean ere izanen da zer egin eta zer ikusi Irurtzunen. Goizeko hamaiketan meza nagusia izanen da eta arratsalde partean, berriz, Irurtzungo Dantzari Txikien Eskolako haurrek euren trebezia erakutsiko dute herritarren aurrean. Gauean Passarella taldeak jarriko du musika. Hamar eta erdietan, gainera, su artifizialak izanen dira.

Jaiak, baina, ez dira asteburuan amaituko, asteazkenera bitartean iraungo baitute. Astelehenean haurrentzako txokolatada izanen da arratsaldean eta gauean dantzaldia Elurterekin. Asteartean Drindots taldeak alaituko du giroa eta azken egunean, berriz, Belea Band taldeak. Sardina jatea izanen da asteazkenean ere. X

Tutera

Ekitaldi ugari herriko haur eta helduentzat

■ Folklore jaialdia eta antzerkia horien artean

Erredakzioa / Iruñea

TUTERAKO jaiak hasi aurretik, hainbat ekitaldi antolatu du bertako Udalak, asteazkenean hasi eta asteburu honetan bukatuko direnak. Helduek zein haurrek izanen dute Udalak prestatu egitarauaz gozatzeko aukera.

Helduei dagokienez, Folklore Jaialdia antolatu du Tuterako Udalak, gaur bertan hasiko dena. Asturias, Murztzia eta Ukrainako taldeek hartuko dute parte Tuterako bertako eta Euskal Herriko beste hainbat herritako taldeekin batera gaurkoan. Bihar, berriz, gaurko taldeak ezezik, Aragoi eta Gaztela-Leongo bi ere izanen da Tuteran. Helduentzat prestatutako egitaraua astelehenean bukatuko da, antzerkiaren eskutik. Calderon de la Barca konpainiak Carlos Llopisen *Nosotros, ellas... y el duende* obra taularatuko du. Martin Ferrer da zuzendaria. Helduentzako ekitaldi hauek guztiak, Castel Ruiz Kultur Zentroan egingen dituzte, gaueko hamarrak eta hamar eta erdietatik aurrera.

Haurrentzako egitarauari dagokionez, La Pera Limonera taldeak *Rucs* lana antzeztuko du. Bihar, berriz, Pai animazio taldeak alaituko du herriko giroa. X

Erroibar

Bailararen Eguna ospatuko dute herritarrek igandean

■ Dianak eta herri bazkaria izanen dira, besteak beste

Erredakzioa / Iruñea

ERROIBARREN EGUNA ospatuko dute igande honetan. Sorabil izeneko zelaian. Bailarako herri guztietan dianak joko dituzte goizeko bederatzietatik eta erdietan, herritarrek esnatzeko. Ondoren, mendiko bizikleta proba izanen da goizeko hamarretan. Ordu bete geroago, meza izanen dute, eta hamaika eta erdietan eskulangileen erakusketa izanen da ikusgai.

Eguerdian, bestalde, mus txapelketa antolatu dute Erroibarren Egunerako eta ondoren, hamabiak eta erdietan, haurrentzako ekitaldi berezia izanen da, pailazoen ikuskizuna, hain zuzen. Arratsaldeko hiruretan, zikero jatea egingen dute trikitilarien laguntzaz. Arratsaldeko zortzietan, azkenik, dantzaldia izanen da. X

Erronkariko euskararen
agonia eta heriotza

Erronkariko uskararen gainbehera

Ubaldo Hualde izabarra izan zen euskalki honetan mintzatu zen eta idatzi zuen azkena

Ubaldo Hualde izabarra izan zen Erronkariko uskara mintzaten eta idazten zekien azkena. Berarekin batera hil zen 1966ko uztailaren 29an euskalkirik zaharrena, milaka urteko hizkera. XIX. mendearen bukaeran, etxean, kalean, dendetan, auzokideen arteko solasaldietan erabiltzen zen Erronkarin uskara, solasaldi publiko zein pribatuetan. Baita ikastetxeetan ere, harik eta, 1876. urtean, euskaldun ez ziren lehen irakasleak Erronkarira ailegatu eta euskara erabat debekatu zuten arte.

Fernando Hualde / Izaba

1966. urteko uztailaren 29an, 96 urte zituela, zendu zen On Ubaldo Hualde Martin, Izaban. Berarekin batera hil zen Erronkariko janzkeraren eguneroko erabilerari; oraindik ere gogoratzen dute, galtza laburrak, gerrikoa, oihalezko alkandora beltza, feldrozko txapela buruan... Dotore eta tente ibili ohi zen, nahiz eta laurogeita hamar urtetako izan. Erronkariar izaceraren bete-beteko sinboloa.

Ubaldoekin batera hil zen milaka urteko hizkera, euskara guztien artean arkaikoena. Euskara Europako hizkuntzarik zaharrena bada, badirudi Erronkarikoa dela euskalkirik primitiboena.

Esandi etxeko On Ubaldo Hualderen heriotza eguna eta Erronkariko uskararena bat bera direla esana du euskal filologo batek baino gehiagok, bera baitzen mintzaten ezezik idazten ere zekien azkena. Hala ere, bere heriotzaren ondoren, bizirik gelditu zen artean Izaban Antonia Anaut Garde, Katalin Garde etxekoa, euskaraz hitz egiten bazekiena, nahiz eta, argi dagoenez, ez zuen norekin hitz egiten. Antonia andrea 1976an zendu zen, 84 urte zituela.

Denboran XIX. mendera arte atzera egin beharko genuke milaka urteko hizkuntza bat ehun urte eskaseta nola desager daitkeen ulertzeko. Ubaldo Hualde Uztarrotzen jaio zen 1871. urtean, familia euskaldun baten baitan, euskaldunak baitziren herriko eta bailarako familia guztiak, Izabako oihanean lan egitera etortzen ziren andaluziar eta valentziar talde batzuk izan ezik.

Erronkariko bailarak bestelako garaiak bizi zituen orduan. Zaharrek, eta ez hain zaharrek, Abbe jenerala bere tropa frantsese-

kin herrian nola sartu zen gogoratzen zuten artean: 1912. urtean lehendabizikoz, Urzainki neurri batean txikituz, eta 1813an gero, Izabako hiriari su emanez eta bipilduz. «Izaba jada ez da esistitzen», irakur daiteke Erronkariko artxiboko agiri batean, «hondakinak baino ez dira gelditzen, eta zoritxarreko herri-tarrak hainbeste euren Errege, Erljio eta euren Aberriaren alde galdu izanarekin kontsolatzen dira». Mende honetako 70eko hamarkadaren amaieran Patricia andrea zendu zen Izaban, bere txirikorda luzei esker famatua eta Erronkariko ohiko orrazkera erabili zuen azkena; Burgiberria auzoko bere etxeko atarian eserita, Anzaiako txokoa, auzokideen arteko solasaldietan gogora ekartzen zuen bere gurasoengandik jasotako —eta haiek aitona-amonengandik— koplak, 1813. urteko herriko suteari buruz mintzaten zena:

El día 13 de mayo,

*¡Qué día tan desgraciado!
a Isaba le han dejado
sin auxilio y sin amparo.*

Are berriagoa zen 1820. urteko iraultzan erronkariarren parte-hartzea. Hartan Riego jenerala altxatu zen eta erregeazale eta liberalen arteko gatazka sortu zen. 1833an, lehenengo gerra karlistarekin batera, erronkariarrak Isabel II.a erreginaren alde agertu ziren.


Belauneko garbantzuaren

belaunaldia • XIX. mendearen amaieran Erronkariko uskara etxean, kalean, dendetan, auzokideen arteko solasaldietan erabiltzen zen; berdin erabiltzen zen elkarrizketa publiko zein pribatuetan. Haurrek, jaio bezain pronto, Erronkariko sehaskanta herrikoi hura entzuten zuten lehen-lehenik:

*Margu lili artean
erleak nara ebiltan dra;*

XIX. mendearen amaieran Erronkariko uskara etxean, kalean, dendetan, auzokideen arteko solasaldietan erabiltzen zen; berdin erabiltzen zen elkarrizketa publiko zein pribatuetan

Eskolan ere euskaraz ikasten zuten haurrek... 1876an, gerra karlistaren ostean, euskaldunak ez ziren lehen irakasleak bailarara ailegatu ziren arte



Ubaldo Hualde Martin eta Jose Estornes Lasa, Izaban.

F. HUALDEREN ARTXIBOKOA



Antonia Anaut Garde, Katalin Garde etxekoa. 1976. urtean zendu zen.

F. HUALDEREN ARTXIBOKOA

*korien ezta gore aurrak
ñola ezin doke murtza.
Erleak: aurkoi bazrade
fantze bertze lilitra.*

Eskolan ere uskaraz ikasten zuten haurrek... harik eta 1876an, gerra karlistaren ostean, bailarara euskaldun ez ziren irakasleak ailegatu ziren arte. Funtzionario berri haiek eskolan euskara erabiltzea debekatu zuten, ikasleek hitz bakar bat esatea ere ez zuten onartzen. Zeinen gogorra izan zen hori, patuak hala nahita nonbait, gaue-tik goizera ama hizkuntza bazterrean utzi behar izan zuen lehenengo gaztetxo belaunaldientzat!

On Ubaldo Hualde, nahiz eta oso gazterik Izabara joan, lehen urteetan Uztarrotzeko eskolan ibili zen. Heldu zenean, artean gogoratzen zuen 1876. urtea, Valladolideko bere hiru irakasleak ailegatu zireneko hain zuzen. Lehen egunetik, hitz bakar bat ere ez zuten onartu euskaraz. Euskaraz mintzatuz gero, gogorki zigortzen zituzten ikasleak: belaunika jarri eta belaunaren azpian garbantzu bat jartzen zieten. Eta berriro eginez gero, bi belaunetan jartzen zizkieten garbantzuak.

Izaban, bere heriotza baino hila-bete batzuk lehenago, argi eta garbi azaldu zion Ubaldo Hualdek Juan San Martin euskaltzainari: «Estatu zentralistak izan duen politikaren erruz galdu

Erronkariko euskararen
agonia eta heriotza

da uskara, eskolen bidez denbora guztian erdara nahitanahiezko bihurtu baitu. Eskolatik kanpo uskaraz mintzatzen ziren haurrek ere zigortzen zituzten irakasleek.

Hala hasten da XIX. mendean azken laurdenean Erronkariko uskararen agonia motela. Mende honen hasieran jada, Erronkariko etxeen barruan eta noizbehinka auzokideen arteko solasaldietan eta dendetan baino ez zen erabiltzen. XX. mendean lehen herenean 40 eta 50 urtetik goitikoak baino ez ziren uskaraz mintzatzen.

Eskolan ama hizkuntza erabiltzeagatik zigorrak jasan zituen haurren belaunaldi hura izan zen, hain zuzen, uskara mintzatu eta transmititu zuen azkena. Orduz geroztik, XIX. mendean bukaeran haur ziren haiek iraun zutena iraungo zuen hizkuntzak ere. 1935. urtean bere VI. taldean sartu zuen Erronkariko euskara Irigaraik: 50 urtetik goitikoek bazekiten baina ez zuten erabiltzen. Mariano Estornes Lasak *Los últimos euskaldunes de Isaba (Roncal)* artikuluan 1963. urtean jaso zuenez, Erronkariko bailaran 12 euskaldun baino ez zen geratzen. Euskalerriko Adiskideen Elkartearen buletinean argitaratu zuen aipatu artikulua (1963, 19. zenbakia, 93-94 orrialdeak). 1966ko uztailean

Ubaldo Hualde: «Estatu zentralistak izan duen politikagatik galdu da euskara, eskolaren bitartez erdara nahitanahiezko bihurtu baitu»



Izabako kaleetan musean aritzen ziren bertako herritarak. 1915-1925 bitartekoa da argazkia.

F. HUALDEREN ARTXIBOKOA

Izaban on Ubaldo Hualde hil zenean, belauneko garbantzua- ren belaunaldiko azken haurra hil zen, uskararen erabilpena eskolan ezagutu zuen azkena, euskal gramatika menderatzen zuen azken erronkariarra —ez bakarrik Erronkariko euskararena, baita zuberorarena ere, euskalki biak hitz egin eta idazten baitzuten—. Berarekin, ofizialki, betiko desagertu zen hizkuntza bakar eta berezia. 1966. urteaz geroztik ere baziren bailaran uskara gehixeago edo gutxieago bazekiten lagun batzuk. 1970. urtean, J.M. Sanchez Carrionek *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra* (Nafarroa, 1972) lanean aipatzen duenez, emakume euskaldun bakarra gelditzen zen: Antonia Anaut Garde, Izaban 1976. urtean hil zena.

Erronkariko kale eta enparantzetan ez dira entzungo goazenak Eguberrietan (gabon kanta zuberotar-erronkariarra), eta Simona zaharrak ez du gai on errepikatuko oheratzerakoan. Uda-berria allegatuta haurrek ez dute jada *Erronkari txoriño* kantatuko. Monarkek itzuli beharko dute bailarara, 1989. urtean bezala, nahiz eta modu testimonialean izan, *onki xin* berriro entzuteko. Izan ere, gauzak, pertsonak bezala, *Nola xin, kala xoa*n, gure aurretiko erronkariarrek erranen luketen bezala.

NAHIZ ETA erronkariarra guztiz desagertu den eta bailaran ez izan erabiltzen duenik, ezta dakienik ere, ezin ahaztu mende honetan hitzak, adierazpenak, kantak, olerkiak, alegiak eta beste berreskuratzeko hainbatek egin duen lan izugarria. Erronkariko azken euskaldunekin hitz eginda lortu dira horiek guztiak. Berreskuratzeko eta ikertzeko egindako lan horri esker, liburutegi publiko eta pribatuetan erronkariaraz dokumentazio garrantzitsua aurki daiteke.

Resurrección M^a Azkue lekeitiarra —Bonapartek joan den mendean egindako lan garrantzitsua- ren ondoren—, uskarari buruzko biltze lanean eta ikerketan aitzindari izan zen mende honetan. Kanta ugari bildu zituen. Bidangozen batez ere, eta ondorengo ikerketa askoren oinarri izan zen *Particularidades del dialecto roncalés* lan zoragarria utzi zigun *Euskera*

aldizkarian (Bilbo, 1931).

Mitxelena, Beloki, Elo-segi eta Elosegiko Sansineneak osatzen zuten ikerketa taldea ere ezin dugu ahaztu. *Contribución al conocimiento del dialecto roncalés* eta *El último roncalés* izeneko lanak argitaratu zituzten Euskalerriko Adiskideen Elkartearen buletinean 1953. urtean.

Erronkariko kanten berreskurapenean aipamen berezia merezi du Juan San Martinen lanak. Orduak eta orduak eman zituen Izabako Simona eta Pastora Anaut Garde, Ubaldo Hualde Martin eta Antonia Anaut Garderekin eta Uztarrozeko Ricarda Perez, Teodora Layana eta Leon Cibraneekin. Horri esker, Euskalerriko Adiskideen Elkartearen buletinean

Fragmentos de canciones populares roncalesas argitaratu zuen 1966an. Hamar urte geroago, Principe de Viana erakundearen *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkariaren 22. zenbakian *Fragmentos de canciones del uskara roncalés* argitaratu zuen, aurrekoaren osagarri. «Ikerketa hauek —aipatzen zuten San Martinek— euskalki horren herri olerkigintzaren zatiak heriotzari lapurtzeko azken saiok izan dira niretzat».

Baina, dudarik gabe, Izabako Estornes Lasa anaiak izan dira (Bernardo, Mariano eta Jose) historiarako Erronkariko euskararen zati garrantzitsuak gordetzeko lan gehien egin dutenak. Añamendi argitaletxea-

ren bitartez uskarari buruzko eta, oro har, Erronkariko bailarari buruzko benetako altxor arkeologikoak utzi dizkigute.

Jose Estornes Lasak, euskal filologo entzute-suenetako batek, Simona Anaut izabarrarekin batera hasitako berreskuratzeko lan sakonaren ondoren *Erronkari'ko uskara* liburua idatzi zuen 1968. urtean; testu liburua zen, eta 124 orrialde-tan Erronkariko uskararen gramatikaren eta hiztegiaren alderdirik garrantzitsua biltzen zuen. Ubaldo osabarekin (Ubaldo Hualde, Izaba) zituen solasaldiei esker berreskuratu zuen hiztegiaren zati garrantzitsu bat. Benetan miresten zuen Hualde. Azentuak, berriz, 1967 eta 1968 urteetan Uztarrozeko Bálbi-

na Ederrarekin egindako grabaketan bidez lortu zituen.

Mariano anaiak, berriz, *Oro del Ezka* idatzi zuen 1958an. Joan den mendeko azken urteetan ko- katzen gaituen eleberri kostunbrista honetan, 44 kapitulutuan, Erronkariko olerki eta kanta ugari biltzen ditu. Uskararen harribitxiak berreskuratzeko dituen dokumentu etnologiko eta etnografiko paregabea da.

Bernardo Estornes Lasak, sagako hirugarrenak, *Erronkari. El Valle de Roncal* liburu zoragarria idatzi zuen 1927. urtean. 1980an, *Cuentos roncaleses, poemas y otras cosas navarras* (Añamendi bilduma, 131. zenbakia) lanaren bidez Erronkariko euskarari omenaldia egin zion. Bernardo Estornes Lasaren lan editorial zabalaren azken ekarria erronkariarazko hamabi-hamalau mila hitz jasotzen dituen da.

Irigaraik 1935. urtean bere VI. taldean sartu zuen Erronkariko euskara: 50 urtetik goitikoek bazekiten baina ez zuten erabiltzen

Xanti Begiristain

Hautesleak ba omen daki

■ Artikulutxo hau idazten hasi behar dudanean Tourra 96 Iruñera sartzeaz dabil. Jainko pottolo, hau eromena! Zer erokeria! Jendea harat-honat erabat urduri dabil. A zer nolako mugida! Zenbat propaganda! Argi dago norbaitek bere biziko etekina ateratzen diola horri guztiari. Bitartean Miguel Indurain orain ere atzean doa, minutu askotxo galduta. Olano, berriz, nahiz eta bigarren lekuan joan, Espainiako komunikabideek ez dute asko aipatzen, eta askoz gutxiago oraindik euskal txirrindulari bezala. Eta joan-etorri honetan guztian gehien izorratzen nauena oraintxe bertan ikusten ari naiz logelako leihotik, hau da, polizia pila, baina gainera ez udaltzainak, foruzainak edo antzekoak, ez, baizik eta Espainia bat, handi eta askearen polizia galan-

tsolamendu eta ukendu hauek eman ondoren jarrai dezadan aurrera.

Eta bai, izenburuan jarri dudanez bezala, idazki honetan beste gauza bat ere iruzkindu nahi dut, alegia, Miguel Sanzen lehendakaritza (gaur nonbait Miguel izenekoen eguna da). Aurreko egunetan Corellako lehendakariaga aritu da Nafarroako Parlamentuan defendatzen bere egitaraua. Nik telebista baten bidez jarraitzen ari nintzen bere hitzaldia, eta halako batean pertsona adineko bat agertu zen telebista-gelan. Pertsona heldu eta ezagun horrek badakit azken hauteskundeetan botoa eman ziola UPNri eta horrexegatik esan nion:

—Begira, begira! Ez al diozu jaramonik egin behar?



tak. Beno, zer egingo diogu? Azken finean, hemen, norberak eta komunikabide bakoitzak nahi duena ikusten du eta komeni zaiona esaten du; beraz, nik ere batere lotsatu gabe hemendik adieraziko dut nahi dudana eta komeni zaidana. Gauzak horrela, nahiz eta oso nabarmena den Nafarroako Gobernuak egindako ahalegina nafartasunaren kutsu hutsa nabarmentzeko zapi, oihal eta ikurrin gorriez esate baterako, neronek ordea, azpimarratu nahi dut, duela ordu batzuek geroztik Tourreko txirrindulariak Euskal Herriko lurretan dabilzala! Bihar berdin. Hau ez dela Frantzia, ezta Espainia ere, baizik eta Euskal Herria, eta ibilbidean zehar euskal ikurrin asko ikusi direla. Beraz, idazten ari naizen bitartean Tourreko mugida guztia Euskal Herriko hiriburu historikoan dago, eta bihar Ipar Euskal herrira igaroko da. Honela, bada, neure buruari kon-

—Buag! Horixe bai aspergarria! Berriz ere hor?

—Baina ez al zara konturatzen horixe dela, hain zuzen ere, zure botoa hartu zuena?

—Bai, baina nik ez dut politikaz piperrik ere ulertzen!— erantzun zidan.

Pertsona batzuek diote gizakiok oso helduak eta erantzukizundunak garaela botoa emateko orduan. Alderdi politiko guztien informazioa jaso ahal dugula gure konbentzimendu eta kontzientziaren arabera gero botoa emateko. Baina zenbat pertsonak, batez ere zaharren artean, ez ote du jokatu antzeko modu batez botoaren eskubidea gauzatzeko unean, batzuetan ezkontidearen eraginarengatik eta besteetan hautagai hori telebistaren pantailan gehien ateratzen dena delako? Hortaz, Miguel Sanz jauna, interesgarria izan liteke jakitea zenbat pertsonak eman dizun botoa erabateko konbentzimenduz. ■

Klasiko bitxi, arrotz klasiko

Joxemiel Bidador

Emaztekien segida
VII: Madeleine
Jauregiberri
basabürütarra

■ Bederatzi anal arriben artean Atharrate aldeko Arozeko Karrikan 1884.eko urrietaren 13an sorturik eta Zibozeko Sibasian 1977.eko irailaren 23an zendua genuen Madeleine Jauregiberri. Zuberoan jaio eta hil izanagatik handik humat ibilitako nor bazen. Alta ezkongai zuelarik Argentina aldean ibilia bazen, eta han zitueneri kariaz Madeleinek urtea bete aitzin bertaratzeko beharra sortu zen, 1891.ean amaren herria zen Zibozera itzuli ziren arte —Epherrek zioenez: «Kartieleko gunerik etjerrenian, ibar-eskugnaren eta ibar-ekherren artian, hegilla batetan, bi alderat so eta bortu-gorari phara—. Errejentsagoa maite zuen, eta Paben eta Parisen osotu zituen irakaskintzako goi ikasketak. Orduan ere sei urte inguru eman zuen langintza hartan Argentina aldean. Irakaskintzarena zinez kezkatzen zuen afera dugu, eta horren lekuko garbia frantses gobernamentuak *Palmes academiques* delako saria eskeini izana dugu. Edozein modutan ere euskararen egoera ere aztoragarri zitzaion oso, eta biak uztarri berean lotzen ahalgindu zen gogotik. Xerka zuen euskara eskoletan sartzea, eta hortaz artikulu nahiko ondu zituen batez ere *Miroir de la Soule* delakoan ageri zirenak. Euskara eskoletan irakasteko erabide ttipia ondu zuen Pabe, Baiona eta Oloroeko behagile akademikoek onartu ostean Iparraldeko eskola guzietara igorri zena. Honekin euskararen erabilera aisa zitekeen gelan, nahiz irakaslea erdal-duna izan, eta disketan oinarriturik zegoen, kantent hitzak frantsesez nahiz euskaraz zeudela. Metodo honen gora beherak Baionako jardunaldi pedagogikoetan mintzagailu izan zituen, eta geroxeago 1959.eko *Gure Herria* aldizkariaren orriotan finkatu zituen *Le disque au service de l'enseignement du basque* izenburuko artikulua bitartez: «Le maître écrit au tableau le texte basque que les enfants recopient en même temps sur leurs cahiers, pendant que le disque donne la prononciation exacte de ce texte. Une fois la copie terminée, la lecture est faite par des élèves qui savent déjà lire. Les autres apprennent très vite en écoutant et très vite également ils se familiarisent avec l'orthographe basque qui est très simple d'ailleurs. La traduction mot-à-mot est faite par les élèves. Le maître a le texte qui lui permet de rectifier les erreurs d'interprétation s'il y a lieu. Cette traduction littérale sert de texte pour la version française de la semaine suivante».

Sendi euskaltzale baten altzoan hezia, orduko mugimenduetan orotan sarturik ibilia zen. Aitzina talde abertzalearen kidea izateaz gainera, emakumearen euskaltzaleteza helburu zuen Begiraleak Batasunaren sortzaileetakoa eta lehendabiziko lehendakaria (1933-1934) izan genuen. Madeleine antzerkigintzan ere aritua genuen, eta antzerkigintza ez ezik —*Mirakullu bat, Zikotza, Euskaldun jaunziak*— baita antzez-taldean sustatzaile eta aholkulariarena egiten ihardun zuen. 1957.ean Baionan Bonaparte printzeari egri zitzaion gorazarrean izendatu zuten Euskaltzain urgazle, eta 1975.ean berriz ohorezko euskaltzain honetako ezagunak ditugun Errobustiana Muxika Tene eta Julene Azpeitiarekin batera.

Bere beste bi anak ere zer edo zer utzi zigun izkiriaturik. Izen handiko Johagne edo Jean genuen, miriku edo bedezja zena, eta bederatzi haurretatik lehena. 1880.ean Arozen ere sortua, Pabeko lycée delakoan ikasi ostean medikuntza Bordelen-egin zuen. Soldaduen mediku joan zen kolonietara: Sudan, Gabon, Côte d'Ivoire, Oubangui, eta bien bitartean Frantzia eta Marokoeko gerlak. 1925.ean erretreta hartu eta Atharratzeko Grison andrearekin ezkondu Donibane Lohitzunen ezarri zen mediku. Handik berriz ere Arozera joan zen non 1952an hil zen. Euskaltzaleen Blitzarreko kide honek aunitz idazki ondu zuen, *Gure Herria, Eusko Jakintza* edota *Libro de oro* argitarapenetan agertu zirenak, edo liburu soil gisa argitara eman zirenak. Clement hagitzez apalago agertzen zaigu eta honako bi lan hauek baizik ez ditugu ezagutzen: *Un peuple pas comme les autres* eta *Le verbe souletin: analyse du mécanisme de sa conjugaison; essai de présentation de cette conjugaison en tableaux schématiques; étude réalisée d'après le livre Le verbe basque du chanoine Inchauspe*. ■



Iruñeko hiria xake torneo irekiko zortzigarren jardunaldiko partida, 1996ko urtarrilaren 4an jokatu Rafael Ruiz Escobar, 2.025 ELOkoa (Euskal Herria) — Marcelino Sion, 2.375 ELOkoa (Espainia). 1.d4,Zf6; 2.c4,g6; 3.Zc3,d5. Erdigunea menpean hartzeko ahalegina. 4.d5,Zd5; 5.e4,Zc3; 6.c3,Ag7; 7.Zf3,c5; 8.Ae2,0-0; 9.Gb1. Endroka logikoagoa zen. 9....d4; 10.d4,Da5 xa; 11.Ad2,Da2. Txuriek peoi bat galdu dute. Baina burua, ordea, hotz daukate. 12.0-0,Ag4.

'd4-ko' peoia mehatxatzen dute.

13.Ag5,h6. 'Ae7' eginez gero, gaztelua sartuko litzateke jokoan (Ge8).

Ikus koadroa. Txuriek amarauna egiten ari dira eta dama beltza da helburua, hau lasai badabil ere. 16....Af3; 17.f3,b6.

Peoia salbatzen dute, baina dama inguratuta gertatzearen truke.

18.Ga4,Db2; 19.Ad4,Zf3 xa; 20.Af3,Ad4; 21.Gd4,aG-c8; 22.e5,Gc3; 23.d6,d6; 24.Gd6,Db4; 25.Dd5,Gc5; 26.Gg6 xa,Eh7; 27.Dd6.

Beltzek etsi zuten. Txuriek azkarragoak izan ziren.



Ehun urteko banda

Zangozako Udal Musika Bandaren mendeurrena ospatzeko ekitaldi ugari antolatu ditu herriko Udalak

Zangozako Udal Musika Bandak ehun urte bete ditu aurten. Mendeurrena ospatzeko, hain zuzen, ekitaldi ugari prestatu ditu herriko Udalak. Herriko jaiak eta unerik garrantzitsuenak alaitu dituzte bandako musikariek urte hauetan guztietan zehar, eta bide beretik jarraitzeko prest dira. Izan ere, gero eta musikari gazte gehiago dago bandan. Banda Txikia ere sortu berri da Zangozan.

Jone Usoz-Rafa Blanco / Zangoza

MUSIKA bandak herriko arima izaten omen dira eta jaietan eskaintzen dituzten kontzertuak herritarrek txalotu eta ikusminez entzuten dituzte. Zangozako Udal Banda Nafarroako zaharretako bat da, eta aurten ehun urte bete ditu. Iraunkortasun honen arrazoiak Zangozan dagoen musikarako zaletasun handia da, belaunalditik belaunaldira igaro delarik.

Urteurrena ospatzeko antolatutako jardunen artean, datorren larunbatean, hilaren 27, eginen duten banden elkartzea da aipagarri. Arratsaldeko zazpietatik aurrera Tafallako, Erriberriko, Lizarrako eta bertako bandak karriketan barrena ibiliko dira, eta gauean herri afaria eginen dute, banda guztien elkartzaren adierazgarri. Halaber, hilaren bukaera arte Kultur Etxean bi argazki erakusketa izango dira ikusgai, bata Udal Bandaren historiari buruzkoa, eta bestea gaur egungo egoeraz eta bere izaeraz.

Gaur ere, Erdi Aroko Afarien IV. Ekitaldiari banda omenduak emanen dio hasiera kontzertu berezi baten bidez. Irailaren 7an, bestalde, herriko jaien bezperan, Zangozako Udal Banda ariko da San Salvador elizan, gaueko bederatzietan, Nora Haur Kantariak, Haizea abesbatza, gaiteroak eta txistulariak lagun izanen dituelarik.

Parrokiako orkestrak • Udal banda honen hastapenak Santiago eta Santa Maria elizetan aritzen ziren orkestra txikietan aurkitzen ditugu. Orkestrakideak eliza horietako musika-kaperetan ikasiak ziren eta Udalak kontratatzen zituen ospakizunetan parte har zezaten: San Sebastianen omenezko jaietan eta Ostiral Santuan, hain zuzen. Zazpietatik ere alaitzen zituzten orkestrak Udalaren eskabidez eta soldataren truke.

Egungoentzako dianak ere jotzen zituzten eta pertsona famatu baten etorrera ospatzeko ere deitzen zituzten. Parrokiako orkestrak arteko tirabirek, apaiz eta elizkideen artera zabaltzen zirenez, Udalaren kontratazioa oztopatzen zuten. Evaristo Valle-

jos, Santa Maria elizako organo jolea, eta Lazaro Gainza Santiagoko izan ziren errieta hauetako protagonista nagusiak.

Zangozako Udal Banda sortu zen urtea ez zen izan aproposena, Nafarroako beste herri asko bezalaxe, zorrez josita baitzegoen Zangoza Bigarren Guda Karlistaren ondoren (1872-1876). Gainera, 1885. urteko morbo kolektorak gogotik jo zuen herria eta 70 biztanle zendu ziren. Hurrengo urteek ez zuten ekarri gauza onik eta eguraldiaren gogortasuna zela eta, uztak galdu egin ziren. Beraz, herria oro pobreturik eta errausturik geratu zen.

Hala ere, «herritar batzuen artean sumatzen hasi zen interesa Zangozak bere musika banda eduki zezan», dio Juan Cruz Labega historialariak. Egoera hartan, Felix Olalkiaga, Carmelo Alarra, Victorino Ugalde bultzatzaileek eta beste 26 auzokidek 1896. urteko azaroan Udalari proposatu zioten herri musika banda osatzea. «Jaietarako kanpoko talde bat ekartzea oso garestia baita». Horrela sortu zen Santa Cecilia Elkarte Filarmonikoa, Ramon Navallas Perez zangozarra lehiendabiziko zuzendaria izan zelarik. 1897ko apirilaren 16an lehenengo kontzertua eskaini zuen Zangozako Udal Bandak, Ostiral Santuko prozesioan. Horrenbestez, Zangozako Udal Banda jaioa zen.

Mendeko istorioak • Udalak 500 pezeta eman zizkion musika tresnak erosteko eta soldata gisa. San Frantzisko eskola zaharrean akademia bat sortu zen gazteei musika irakatsi ahal izateko. Garai hartatik hona mendean zehar gertatutako istorioak gogoan dauzkate bandako kideek, batez ere herriko familia ugariaren istorioak musikarekin loturik.

Bandaren batuta hamar zuzendariren esku egon da, haien artean Jesus Vallejos (1951-1927), Antonio del Solar (1950-1966), Miguel Larrañeta (1970-1983) eta Jesus Maria Bermejo (1966-1970 eta 1983tik gaur egunera arte) dira aipagarriak, bandari maila artistiko eta kalitatea eman diotelako.

Harik eta Juan Frances de Iribarren Musika Eskola sortu zen arte, 70eko hamarkadan, Zan-



Zangozako Udal Banda mendeurrena ospatzen ari da aurten ekitaldi ugari bidez. Argazkietan, banda 1963-1966 urteetan.

ARTXIBOKOA



gozako Udal Banda zen musika ikasketak egiteko aukera bakarra. Bestalde, irailaren 11tik 17ra bitartean ospatzen diren jaietan Zangozako Bandak izaten duen garrantzia berezia da, giroa alaitzen baitu momentu guztietan. Jesus Maria Bermejo gaur egungo zuzendariaren ustetan, «bandaren arazo larriena San Sebastianen omenezko jaietan lan sobera izatea da, gauero ordu bietan etxeratzen garelako eta goizeko zazpietan altxatu behar izaten dugulako dianak jotzeko. Lana urtean zehar banatu beharko genuke, eta ez soilik jaietan jo».

Hautu-mautu batzuk ere ez dira falta, Foru enparantzatik Karrika Nagusian barrena egiten den *Bajadica del Prao* deritzon ibilaldian gertatzen direnak, esate baterako. Jende multzoek saltoka eta kantuan berrehun metroko ibilaldi hau egiten dute musikarien aurrean. Sarritan, edari goxoek animaturik, ukondoka eta bultzaka hasten dira herriko gazteak bandaren kaltetan, musikariek kolpe guztiak jasotzen baitituzte. Zuzendariaren keinu batez *Bajadica* geldiarazten da, bildutako jendearen izugarriko txistuen artean.

Ehun urteko banda honek dituen ezaugarri nabarmenenetako bat bere gaztetasuna da. Taldea osatzen duten 44 lagunek Udal Musika Eskolan ikasitako 12tik 32 urtera bitarteko musikariak dira. Gazteena, Nora Bermejo dugu, 12 urteko klarinete jolea eta zuzendariaren alaba, alegia.

«Eskola hau musikarien iturburu nagusia dela nabarmena da. Bandaren etorkizuna bertan dago eta gazteek gero eta maila altuagoa dute», dio Bermejo zuzendariak. Horren lekuko, berriki sorturiko Banda Txikia dugu, eta 11tik 16 urtera bitarteko gazteek osatzen dute. X

Urteurrena ospatzeko antolatutako jardunen artean, datorren larunbatean, hilaren 27, eginen duten banden elkartzea da aipagarri. Arratsaldeko zazpietatik aurrera Tafallako, Erriberriko, Lizarrako eta bertako bandak karriketan barrena ibiliko dira.

* ◆ Mikel Aizpuru ◆ UEUko zuzendaria

«Inoiz baino ikasle gehiago ditugu»

Astlehenean, hilaren 15ean, abian jarri zen Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) Iruñeko Larraona ikastetxean, ohi bezala. Mikel Aizpuru da aurtengo lehendabiziko aldiz. UEU, baina, ez da berria beretzat eta ongi ezagutzen du barruko dinamika. Aurtengo ikastaroei buruz eta UEU berari buruz mintzatu da gurekin Mikel Aizpuru.

Edurne Elizondo / Iruñea

Goizeko hamaiketan, atseden hartzeko ordua da Larraona ikastetxean. Hainbat ikastarotan izena eman duten gazteak, ikasgelatik atera eta pasabideetan biltzen dira, egungoaz eztabaidatzeko. Mikel Aizpurrekin ere, atsedendariaren orduan egin dugu topo.

■ **Zuk zuzenduta egiten den lehen Udako Euskal Unibertsitatea da aurtengoa. Zein gogoz egiten diozu aurre erronka horri, urduri al zaude?**

Urduritasuna beti dago ardura bat zure gain hartzen duzunean, nahiz eta ongi ateratzen ari dela ikusi. Hasieran, ikasle kopurua txikia dela ikusten duzunean kezkatu egiten zara, baina bada-kizu ez dela zure errua, ez du zerikusirik zuzendaria zu edo beste bat izateak. Baina lasai nago, gainera, UEU talde lana da.

■ **Zein da UEUko zuzendariaren betebeharra?**

Nik esaten ohi dut dirua eskatzea dela zuzendariaren lana. Batez ere hainbat erakunderekin dauden harremanen arduraduna da. Harreman horiek zaindu eta gorde egin behar ditu zuzendariak.

■ **Aurtengo UEUko ikastaroei dagokienez, zer nabarmenduko zenūke?**

Inoiz baino gai gehiago daukagu aurtengoa. Guztira 37 ikastaro antolatatu ditugu Baiona eta Iruñea artean, beraz, denetarik dago, denen gusturako ikastaroak eritugu: zientzia, musika, historia, glotodidaktika, antzerkia, zologia, informatika eta abar.

■ **Eta zer da aipagarri ikasleei dagokienez?**

Gaiak bezala, inoiz baino ikasle gehiago daukagula aurtengoan. Hasieran beldur ginen, jende gutxi eman baitzuen izena. Baina politiki-poliki, ari dira. Guztira, La-

arraonan 750 ikasle inguru biltzea espero dugu, beraz, oso ondo dago.

■ **Nabaritzen al da aurtengo UEUn Mikel Aizpurren ukitua?**


Aldaketak gertatzen dira ez pertsonak aldatzen direlako, atzean talde lana dagoelako balzik. Egia da ni saiatzen naizela UEU estandarizatzen, normaltzen eta batez ere liburugintzari garrantzia ematen, baina horretan, zuzendari naizetik eta baita lehenagotik nabil. UEUn egiten dena ez gelditzea Iruñean, ikastaro solean, baizik eta argitaratzea. Ez dakit hori nere ukitua den, baina bai behintzat hasieratik oso garbi izan dudana.

■ **Egun oraindik UEU urtean behin Iruñean egiten den ikastaro multzoa dela uste al du jendeak zure irudikoz?**

Bai, zoritxarrez leku askotan hala gertatzen da, hori uste du jende askok. Ikusten dute UEU zerbitzu bat bezala, ikastaro bat bezala, eta hor amaitzen da dena. Gure lana da azaltzea UEU ez dela hori bakarrik, badela ere argitaratu ditugun 200 liburuak eta urtean zehar egiten ditugun ekitaldiak.

■ **UEUk euskarazko unibertsitatea sortzeko behar diren baldintzak gauzatu behar dituela aipatu izan duzu. Euskarazko unibertsitate hori sortzeko bidearen zein urratsetan gaude gaur egun?**

Oraindik bidearen hasieran



UEUko zuzendaria da Mikel Aizpuru.

ARTXIBOKOA

gaudela uste dut. Gu deia zabal-tzen hasi gara, behar dugula euskarazko unibertsitate bat Euskal Herri osorako. Horretan ari gara, dei hori zabalitzen eta ahalik eta atxikimendu gehien biltzen.

■ **Zein da UEUren betebeharra euskarazko unibertsitatea sortzeko bide horretan?**

UEUk bi lan ditu bide horretan; batetik, deia egitea eta zabal-tzea eta, bestetik, prestaketa lana du UEUk. Irakasle askok eta askok euskarazko lehen mintzaldia hemen eman dute. Gaur egun unibertsitatean erabiltzen diren liburu asko ere UEUn sortuak dira, beraz, hor badugu lan garrantzitsua, harrobi lana. Nabarmena da euskarazko unibertsitatea sortu ahal izateko baliabide ekonomikoak behar direla, baita giza baliabideak ere. Hau da, hainbat eremutan oraindik ez dugu euskal irakasle prestaketa eta, beraz, euskarazko unibertsitatea sortu baino lehen irakasle ego-kia behar dugu.

■ **Iruñean da egun hauetan UEU,**

s o s l a i a

Gabirian (Gipuzkoa) jaioa da Mikel Aizpuru, UEUko zuzendaria. Larraonara ez da aurtengoa etortzen den lehen aldiz, 11 urte eman baititu bertan. Historia sail-leko buru izan zen lau urtetan. Aizpuru, hain zuzen, historia irakaslea da Gastetean.

Lau urtez Historia sailean egon ondoren, UEUko Talde Eragilean sartu zen Mikel Aizpuru. «Giro politika daukagu UEU barruan, alde horretatik pozik nago», aipatu du. Kepa Altonagak zuzendartza utzi zuenean bere izena izan zen gainontzeko kideek proposatu zutena. Baietz erran, eta aurtengo lehendabiziko aldiz, UEUko zuzendari da Mikel Aizpuru.

Bere zeregin berriari gogoz eta pozik heldu dio Mikel Aizpuru. Lau urteko lana izanen da, hala erabaki baitzuen iazko UEUko kongresuak. Aizpuru, gainera, lau urteak betetzeko asmo garbia du. «Gogo horrekin hartu dut kargua», aipatu du.

Baionako ikastaroak amaitu ondoren. Zer moduz igaro dira hangoak?

Arrakasta handia izan dute Baionako UEUko ikastaroei. Iaz porrota izan zen. Edurne Alegriak lotsagarritzat jo zuen iazko emaitza. 50 lagun inguru izan genituen. Aurtengoan, beraz, arreta berezia eskaini diegu Baionako ikastaroei eta arrakasta itzela lortu dute. 150 ikasle inguru izan da guztira. Guk nahi duguna da Iparraldetik oraindik jende gehiagok parte hartzea, ikusten baita egon direnak batez ere irakaskuntzarekin lotutako lagunak direla. Balorazioa, hala ere, oso ona da eta datorren urtean indartzea espero dugu.

LARRAONA BAINO GEHIAGO

«UEU ez da bakarrik Larraona, argitaratu ditugun 200 liburuak eta urtean zehar egiten ditugun ekitaldiak ere badira UEU»

P A N E
LUCRÁNDO

ZALDI EROA

